

José Elizondo

ALKATE ONA

Hainz beharrezkoak eztertsa. Ia
-- Hainz/ku ezko-gastetiek --
..... sartze



EDICIÓN
MARTÍN, MORA Y C.ª S.ª S.ª
Pasadizoak, 14, 2.º planta
1915

José Elizondo

ALKATE ONA

Koitz bakarrakiko antzerkia, ta
- - Bilbo'ko euzko-gaztediak - -
saritua



DONOSTIA'N
MARTÍN, MENA Y C.^aREN ECHEAN
Fuenterrabía, 14, beko gelan

1912

ANTZEZTARIAK

TXOMIN ARRANO
KAXILDA
URTZALE
IJITUA
IJITANDRA
BIZARGIÑA
ALKATIA
ERRIZAYA
MIKELETIA

Ardanzalea
Bere emazia
Korkoxa

Koitz bakarra

Iruditegian kontzejupeko ardandegia.- Erdiyan atadirako atea.- Eskuira zapairakoa ta ezkertera ikuillukua, mai, aulki, pitxar ta abar.

LENDABIZIKO IRUDIA

Txominarrano ta Kaxilda

- TXOMIN. Ixillik zaude emakumia; belarriyak eten bearrian dauzkat zure jarduna dalata.
- KAXILDA. Ta ni zure arranuekin moño tontorreraiño beteta gañez eginta nago.
- TXOMIN. ¡Gajua! ¿Noiz arrano etengo zaizu miñariya edo zintzurra?
- KAXILDA. Utikan; mingain gaizkotua; obe zenduke jeniyo zital ori onduko balitzakizu.
- TXOMIN. Sosuak beliari ipurbeltz, zuria onduko dan baño len txangurruak aurreraka ibilliko dira ta igelai bizarra jayoko zayete.

BIGARREN IRUDIA

Lenguak eta Urtzale

- URTZALE. (sartuaz) Ur preskorik bai aldaukazute?
- TXOMIN. ¿Zer ur presko arrano? Emen ez da ardua beste gauzarik ematen.
- URTZALE. Orrexegatik nentorren bada. Ez diyote edozeñi ura eskatuta ardorik emango neri bezela.
- TXOMIN. Len ere berriketaz aspertuta nago. ¿Tira, zenbat ardo bear dezu?
- URTZALE. Ekatzu baso bete: beztela, zaude. zaude: atera idazu kuartillo bat, gaur egarri izugarriya daukat eta.
- (Txomiñek, saragitik atera eta pitxar batian ematen dio).
- KAXILDA. Barkatu idazu, baña, jakiñ al diteke zein ta nongua zeran?
- URTZALE. Iturrondokua naiz, eta Urtzale deritzat.
- TXOMIN. Urzalia izan bear dezu, bai, arranopola; goizean goizetik ardua kuartilloa edaten azitzen zerata.

- KAXILDA. ¿Ta zuri zer dizu pitxarka edan nai badu ere? Zu ere etzera arduetik edo beste zerbaitetik baraurik egongo.
- TXOMIN. Nik edatia ez da arritzekua, egarbera naizta.
- KAXILDA. ¿Bestiak zer dira bada? Ez al daukate eztarririk zuk bezela?
- TXOMIN. Bai, baña, ez zuk añeko mingañik, berritzu arranua.
- KAXILDA. ¿Ixilduko ote zera zure arranuakin? Txominarrano deitu zizunak, ondo batayatu ziñuzan, bai.
- URTZALE. Ni naizelata, etzaitezte aserratu, beintzat.
- TXOMIN. Ez da zu zeralata gure aserria; egunak dauzkan ordu guzietan onela jarduten gera, ez daukagu bezte zeregiñik.

IRUGARREN IRUDIA

Lenguak eta Ijitandra

- IJITANDRA. (sartuaz) Txester ederrak etxekoandria.
- KAXILDA. Ez ditugu bear.
- IJITANDRA. Txit merke emango dizkitzut.
- TXOMIN. Ekarri zazu berau sartuta edukitzeko sumitzezko kayola bat, nik erosiko dizut eta.
- URTZALE. ¡Ja, ja, ja! ¡Au Txominarrano arranua!
- KAXILDA. Joan zaitea emakumia, onek ez dizu ezer erosikota.
- IJITANDRA. (aulkiyan exeritzen da) Ezer erosten ezpadirazu ere, zerbait artu bear det barau gorriyan nagota.
- KAXILDA. ¿Zer artu nai dezu bada?
- IJITANDRA. Ekatzu ogi puxka bat eta kuartillo bat ardo.
- KAXILDA. Zu ere egarberaren bat bazera
- IJITANDRA. Txiki txikitatik onelakoxia naiz.
- KAXILDA. Nere gizona bezelakua, beraz.
- TXOMIN. ¡Berritzu madarikatua! Zazpi mila arrano mututuko al zaituzte.
- URTZALE. ¿Nun dezu ikullua?

- TXOMIN. Eginkizunen bat aldaukazu ikulluan? Beyak ikustera bazuaz alperrik joango zera; gurean ez dago beirik
- URTZALE. (sabelari eutxiaz) Ez; bezte zeregin bat etorri zait bat batera.
- TXOMIN. Zuaz, zuaz gizarajori; ezagun dezu zer dezunta. (joaten da Urtzale ikulluko atetik)

LAUGARREN IRUDIA

Txomin, Kaxilda ta Ijitandra

- IJITANDRA. Saskirik erosten ezpadirazute, etorkizun ona asmatuko dizutet.
- KAXILDA. ¿Zer etorkizun ta joakizun? Naikua lan izango dezu zedorrenari igartzeakin, ta ixillik zaude.
- TXOMIN. Ixillik zaude bai, onek bakarrik itzegin dezan; au noiz edo nola mututuko dan asmatzen badirazu, gozaria duan emango dizut.
- IJITANDRA. Ori gauz erreza da; erosi zazu kotorra bat eta andria inbiriz mututuko zaizu.
- KAXILDA. (eskoba artuta jotzeko kiñua egiten diyo Ijitandrari) Zuaz emendik, likitza.
- TXOMIN. Lagayozu pakian (Ijitandrari) Ardo zaltzez azpertz naiz ta ¿nola aberaztuko nintzake?
- IJITANDRA. Erosi edo ostu zazu loteriyako txartel bat eta igortzi zazu korkox baten konkorrarian; lenbiziko sariya ateratzen ezpadezu, lepua moztu dagidatela.
- KAXILDA. (Ijitandrari) Zaude ixilik txaldan alena, gezurra darizu farrafarra ta.
- TXOMIN. (pozaz) ¡Au mauka! Korkoxari igortxi ta bezte gabe aberaztuko naiz (Kaxildari) Zuaz estankura ta erosi zazu loteriko txartel bat; azkar ibilli zaitia, aberaztu bear gerata.
- KAXILDA. Gizona, ¿zoratu al zera?
- TXOMIN. Zoratu bai zu, txartela ekarri zazu berriketa gutxiyekin.
- KAXILDA. Ekarri bear ko diyot pakia izango badet.

BOSGARREN IRUDIA

Lenguak eta Urtzale (Kaxilda gabe)

- URTZALE. Au deskantzua artu det.
- TXOMIN. Gure baratzeko babak mezede izango dute
- IJITANDRA. (Urtzaleri) Gizontxua, ¿nai aldu etorkizunaren berri jakin?
- URTZALE. ¿Zein dator, bada, obispua edo errege?
- IJITANDRA. Ez det ori esan nai; bedorren...
- URTZALE. Beorrak mendiyen; ni ez naiz bedorri, zu edo i baizik.
- TXOMIN. (Bereartean) Korkoxa ere ez da mingañez motza; nere andriakin ustartu diteke
- IJITANDRA. (Urtzaleri) Esan nai dizut edo diyat, eze, zure edo ire etorkizun ona agertaratzia nai dezun edo nai dekan?
- URTZALE. ¿Etorkizun ona? Etorri bear onekua izan banitz ez nuan bizkarrean daukaten au izango.
- TXOMIN. Tira laga zayozu berriketari ta aditu zakitza zer esaten dizun.
- URTZALE. (Ijitandrari) Tira bada esan zazu esan bear dezuna, emakumia.
- IJITANDRA. (Urtzaleri eskua artuta) Denpora asko baño len aberaztuko zera.
- URTZALE. ¿Aberaztu? Ez beintzat eguzkiya oraingo bidean badabill. ¿Nundik nora ni aberaztu?
- IJITANDRA. Zuk badaukazu anai bat erbeztean.
- URTZALE. (arrituta) ¡Egiya da! (bereartian) ¿Nola jakin ote du?
- IJITANDRA. Anai ori, laster ziara aberaztuta etorriko zaizu.
- URTZALE. Ez geyago esan; ez geyago esan; naikua det...
- IJITANDRA. Zaude, gizona, zaude oraindik. Eta egun batetik beztera ilko da.
- URTZALE. ¡Bapo! Ta orduan dauzkan diru guziak neretzat izango dira.
- IJITANDRA. Eta aziendak ere bai.
- URTZALE. (txanpon batzuek patrikeratik aterata ematen dizka Ijitandrari) Eutzi; ardotarako neukan dirua bada ere; mezede izugarria egin dirazuta.

Lenguak eta Kaxilda

KAXILDA. (sartuaz) ¿Zer mezedo gero? ¡Eta xinistu egiten diyote! (Ijitandrari)
¿Oraindik emen zaude?

TXOMIN. (Ijitandrari) Ta nere andria noizko bezela mututuko da?

IJITANDRA. Zuk kitorra erosi bezin laster.

KAXILDA. (Ijitandrari eskobakin erasotzen diyo) Zuaz emendik berritzu
gezurtiya.

(Joaten da igesi Ijitandra erdiko atetik)

KAXILDA. (Txomini) Eutzi zorioneko txartela.

(Ematen diyo txartela Txomini ta joaten da eskuiko atetik)

ZAZPIGARREN IRUDIA

Txomin, Urtzale ta Ijitua

(Sartzen da Ijitua bizkarrian tximuba ta kitorra bat barruan daukan kayola,
dakazkiyela, filarmonika zar bat jotzen).

IJITUA. Yinkuak adu on dakotzutela, yaunak

TXOMIN. ¿Musika ere badegu?

URTZALE. Komediантиak erriratu zaizkigu, Txomin.

IJITUA. Tximuba dantzan ikusi nai baduzute, sos batengatik ikusinen
duzute

TXOMIN. Ez degu tximu bearrik; aski tximubak gera gu ere.

IJITUA. Orduan, kitorrak, gure Presidentak senatuan egin dun mintzaldiya
egingo dakozute.

URTZALE. ¿Zer? Ijituak ere presidenta badezute?

TXOMIN. Bai aben aziendak gobernatzeko.

IJITUA. Gure presidenta dala erraitia nai ezpaduzute prantzesena dala
errango dut.

- TXOMIN. (eskuakin bere kopeta juaz) ¡Arranua! ¿Nun daukat burua? (Ijituari) Zaude, zaude; ¿salduko alzenduke kotorra?
- IJITUA. Ez bait daukat saltzeko, baña sos premiyan nagolarik alimali biyak salduko dizkizut.
- TXOMIN. Ez det tximu bearrik.
- IJITUA. Ezin saldu nezazkike biyak baizik.
- TXOMIN. (bereartian) Tximuba ere erosi egin bearke diyot (Ijituari) ¿Zenbat nai dezu bada alimali biyakatik?
- IJITUA. Eun libera; ez bat gutiago ta ez geyago.
- TXOMIN. (Urtzaleari) ¿Zenbat dira eun libera?
- URTZALE. Eun peseta edo eun lauerrialeko.
- IJITUA. (Txomini) ¿Nai duzu edo ez?
- TXOMIN. ¡Bai zera! Asko da; gure andriak txautuko ninduke; gau ta egun marmarizuan ixildu gabe jardungo luke.
- URTZALE. Askotxo da, bai; (Ijituari) Eskatu dezun erdiyakin ere aski dezu.
- IJITUA. (Txomini) Torizkizu bada alimaliak, baña, bigar artean iskutuan eduki behar baituzu. Ekaizkidatzu berrogeitamar libera.
- TXOMIN. (Ematen dizka berrogeitamar pesetak eta tximuba ta kayola artzen dizka)
- IJITUA. Agur yaunak. (joaten da erdiko atetik)
- BESTE BIYAK. Agur.

(Txomin tximuba ta kayolakin, ezkuiko atetik joaten da).

ZORTZIGARREN IRUDIA

Urtzale bakarrik

¡Gizarajua Zoratu bear du bere andria mututu nairik. Kotorra erosi du emaztiaren jarduna ixiltzeatik. Orain baten lekuan bi kotor izango ditu ardanzele errukarriak. ¡Bakoitza bere zoramenak darabill! Zer egi andiya esan zun au esan zunak. Ni ere banabill bizipidia eratu eziñikan, baña gaurkoagatik sabel aldia ondo gozatu bear det Txominen bizkar bada ere. Gizon biozbera dirudi zakar xamarra bada ere, ta zakarra izatia bear ere badu daukan andriakin: txirrixkalia baño areago da berriketan azten darian ta asitzeko utza biar du. Nik eztakit zenbait emakumeri, orrenbezte itzegiteko arnaz ta txistua nundik sortzen zayeten. Neri beintzat itz bigarrenerako, eztarriya ego aiziak jota bezela legortu, ta txistua, ingurdua baño lodiyago egiten zait; orduan mingaña abo zapayan

pegatuta edukitzen det eta txori emia baño mutuago gelditzen naiz. ¡Baña, au da patxara daukatana! Onik onenian kartzelara eramango banaute ere ez dakit eta putriak baño gibel andiyagoakin, emen nago, billatuko ez nindutekean lekuraño igaz egin gabe. ¡Zenbat gaiztakeri eragin oiditu bear izateak! Bildotza baño otzanagoa naizelarik, bearrak gaiztakeria eragin dit. Gozeak nengoanta ziara auldu bear nintzan, bai, ta orduan, sartu artzai txabola batera, eznia edo zerbait elikagarri ezkatzeko asmoakin: iñortxo ere etxegoan ta ¿zer egin det? Artu det... (pauso otsa aditzen da) Baña norpait dator...

BEDERATZIGARREN IRUDIA

Urtzale ta Txomin

- TXOMIN. (sartuaz) Orain puzka baterako pakea egin degu. Andria etorriko ezpalitz nai nuke, arranopola.
- URTZALE. Zu zeran gizonakin andriaren bildurrez zaude? Ez dakin orrenbezte arrayokin nola oraingoz kixkaldu ez dezun.
- TXOMIN. ¿Kixkaldu? Berak bai kixkaltzen ditala odol guzia; galtzarbian daukaten txoriya ere berak eragindakua da
- URTZALE. ¿Zer? ¿Galtzarbian kayola aldaukazu?
- TXOMIN. Kayolik ez daukat, baña txoriya bai.
- URTZALE. ¿Eta ez aldu igaz egiten?
- TXOMIN. Atea zabaltzen diyot baña ez du aldegin nai, arrano madarikatuak.
- URTZALE. ¿Arranua alda bada?
- TXOMIN. Ez gizona, ernada.
- URTZALE. ¿Ernada? ¿Aurtengo pasakua izango da, beraz?
- TXOMIN. ¡Bai zera! Bi urte abetan neronekin daukat eta; berbera, egun bitik batian sendakintza egitera etortzen zait.
- URTZALE. ¿Zer bada? Txoriya gaxorik aldago?
- TXOMIN. Ez gizona. Zer arrano da berau? Nere andria baño berritzuago zera. Ez aldakizu galtzarbian sortu oidan suldarrari ernada deitu oizayola; erderaz golondrino?
- URTZALE. ¡Anjela Maria! Zuldarra daukazu beraz?
- TXOMIN. Bai laster etorriko zait barbera sendakintza egitera, baña, alatxanpaña bidalduko det, ez dit ezere aurreratzen.

- URTZALE. Ori, pikiakin sendatuko zenduke.
- TXOMIN. ¿Pikiakin? Ipiñi zazu zuk mingañian. ¿Mormuakin nagoala uzte aldezu? (azerretuta)
- URTZALE. (bereartian) ¡Au da jeniyo txarra daukana! (Txomini) Zure ongatik esan dizut, baña, onesten ezpadiyozu, barkatu zaidazu.
- TXOMIN. Berrikerari utzita, tragoxka bana edan zagun, Urtzale.
- URTZALE. Nai dezuna, Txomin.
- (Txominek ateratzen du saragitik pitxarra bete ardo ta mayean lagata aulkiyan exeritzen da Urtzalekin batera. Betetzen ditu biyen edontzi edo basuak eta eskintzen dio bat Urtzaleri.)
- TXOMIN. Tira Urtzale ardozalia; orrenbezte jardun eginta egarriz egongo zerata edan zazu.
- URTZALE. (edontzia artuaz) Ezkerikasko, Txomin. Zure ernadaren osakintzogatik edatera noakizu. (edaten du Urtzalek)
- TXOMIN. Ta ni zure korkoxaren osasunagatik (edaten du Txominek) ¿Nola egin zendun korkox zorrotz ori?
- URTZALE. Nik ez nuan egin; amak egin zidan.
- TXOMIN. ¿Jayotzekua dezu, beraz?
- URTZALE. Ala izan bear du; nere gogamen ezkeroz, neronekin darabil eta. (bereartian) ¿Gezurretan atxituko ote nau?
- TXOMIN. Iruditzen zait, emen sartu zeran ezkeroz, korkoxa azi egin zaizula.
- URTZALE. Izan ditekena da; ilgoran azi ta ilberan gutxitu egiten zait.
- TXOMIN. Beraz illargiyari igartzeko ez dezu pronostiku bearrik.
- URTZALE. Ezta palometrorik ere.
- TXOMIN. ¿Utziko aldirazu korkoxaren gañetik neurriya pasatzen?
- URTZALE. Legun legun bada, bai, baña, kontuz ibilli zaitia alperrik galdu ez dezaidazun.

(Txomin jaikitzen da ta Urtzalek ikusi gabe patrikeratik loteriyako txartela aterata pasatzen diyo iru edo lau aldiz korkoxaren gañetik; gero korkoxari usai egiñaz txartela patrikaran gordetzendu.)

- TXOMIN. Auxen da usai gozua korkoxian daukazuna. Gazt usaya dala esango nuke gezur aundi gabe.
- URTZALE. Izan diteke; bularrekua nintzala amak eman zizkidan ezne guztiak or dira ta.
- TXOMIN. Ez daukazu goze bildurrik, beraz.
- URTZALE. (bereartian) Baña bai juez jaunarena.
- TXOMIN. Edan zagun, Urtzale, lazter aberaztuko geranen pozian bada ere.
- URTZALE. Nik beintzat siñixten det aberaztuko naizana; nere anai ori len ere txit asayatua zan ta ez diot gaitzezten aberatz porrokatua etorriko danari; etorrita pulmoni bat arrapatuko du edo txakur amorratu batek kosk egingo diyo ta ilko da; orduan bere diru guziak neretzat izango dira.
- TXOMIN. Abejondizula ta ala izan dedilla, Urtzale.

AMARGARREN IRUDIA

Lenguak eta Bizargiña

- BIZARGIÑA. (sartuaz) ¡Kaxo jaunak!
- URTZALE. Ongitorri.
- TXOMIN. (bereartian) Emen da sangrijuelas arrano au.
- BIZARGIÑA. ¿Zer diyozu Txomin?
- TXOMIN. (azerre) Laga idazu pakian, arrano birekin; ez daukat berriketarako gogorik.
- URTZALE. Eziozu itzegin, andriakin aserretu da ta.
- BIZARGIÑA. ¿Nik zer egingo diyot bada? (Txomini) ¿Nola daukazu txoriya? ¿Ikusiko aldegu?
- TXOMIN. Ikusi zazu aidian dijuana, ez nere galtzarbekua, kilkir arranua.
- BIZARGIÑA. ¿Zendatu alzatzu, bada?
- TXOMIN. (emakumearen itza irudikatuz) ¿Zendatu alzatzu bada? Izketan, nere andria dirudizu. ¿Noiz arrano ikasi bear dezu gizonak bezela itzegiten?
- BIZARGIÑA. Gaur, guztiz aserre zaude; andriak gaizki artu zaitu, nunbait.
- TXOMIN. ¿Zer andre ta zer pazi? Obe zenduke sendakintzan obeto sayatuko baziña, nere antzera, inor supritzen eduki gabe.

- BIZARGIÑA. ¿Nik zer egingo dizut, zu odol ta aragi txarrekua bazera?
- TXOMIN. ¿Zer aragi ta zer urdai? Txarra izantare zati galanta jango zenduke, gozeti arrano orrek.
- URTZALE. Baita nik ere orain daukatan goziakin: ¡Aaaaa...! ¡Au da barau luzia! Azte santua dala iruditzen zait.
- BIZARGIÑA. Tira Txomin; nai badezu, sendakintza egingo dizut.
- TXOMIN. ¿Sendakintza? Ilkintza esan bazendu zuzenago asmatuko zenduan. (Urtzalegatik) Sendatu zazu onen korkoxa.
- URTZALE. Ez, ez; ez neri ikutu.
- BIZARGIÑA. Ez gizona, ez; urte askotan iraun daizula.
- URTZALE. Alabedi.
- TXOMIN. Alabedi esaten du ¡alajaña! ¡Ori da konformidadia!
- TXOMIN. ¿Zer egingo diyot bada?
- TXOMIN. Onezkero aizkorakin ebaki nuan neria izan balitz Erniyoko gallurra dirudian konkor ori.
- BIZARGIÑA. Txomin, sendakintza egitia nai espadezu, kontuak egin ditzagun ta eman idazu eman bear dirazuna.
- TXOMIN. ¿Kontuak egin bear alditugu? Egintzazu kontu, kontuz konturatu gerala ta kontatu zakitzu amonari.
- URTZALE. ¡Au da kontuz!
- BIZARGIÑA. Ez diyot amonari kontatuko; alkateari kontatuko diyot kontu au. ¿Egingo aldegu kontua edo ez?
- TXOMIN. Naikua kontu daukat nik, galtzarbeko txoriyen zulakadak kontatzen. Zuaz alatxanpaña.
- BIZARGIÑA. ¿Ez dezu nai? Alkateagana nua, bada.
(Joaten da Bizargiña erdiko atetik)

AMAIKAGARREN IRUDIA

Txomin, Urtzale ta Kaxilda

- KAXILDA. (sartuaz) ¿Zer iskanbilla da au? ¿Ez aldegu une beteko pakerik bear?

- TXOMIN. Zu bezelako deabruak diran lekuan, pakea nekez izango da. Emakumia, gu pakian gaude ta zaude ixillik, milla arranorekin.
- URTZALE. (bereartian) Orain ere, arranuak millaka irten zaizka aboko zulotik; arranoz betetako kabiya dauka zintzurrean, Txomin arrano onek.
- KAXILDA. (Urtzaleri) Ez dakizu ondo, onen onduan daukatan inpernua, batean arranoa dala, ta beztean galtzarbeko txoria.
- TXOMIN. Ta nik zure onduan zerua daukat. Nere oñaze ta atzekabe guziyak zure berritzukeriyagatik dira, igarri dizut.
- URTZALE. Baliteke, bai; emakumien mingaña zorrotza bait da.
- KAXILDA. Zuria leguna! Ardua milixkatzeko bai. Obe zenduke sor dezun ardua pagatuko bazendu.
- URTZALE. Emakumia, etzaiteala eztutu; aberaztutakoan propiña ta guzirekin pagatuko dizut.
- TXOMIN. Tira Kaxilda, zuaz sukaldera zazpireun milla arranorekin; pakia bear degu; pakia.
- KAXILDA. Enaiz juango zer izkanbilla izan dezun jakin arteraño.
- URTZALE. Utza izan da; Txomiñek, Bizargiñari sendakintza pagatu nai izan ez diyo, arrazoi zuanta.
- TXOMIN. (Urtzaleri) Txitua bezela itoko zinduzkeat, berritzu arranua. ¿Orain zer dauka andriak zer jakin Bizargiñakin gertatu zaidana?
- KAXILDA. ¿Ori ere badegu? Nik pagatuko diyot, soñekotaraño guziyak salduko baditut ere.
- URTZALE. Laga zayozu Txomin soñekuak saltzen; gero salbajiak bezela taparrabuakin ibilliko da.
- TXOMIN. Bai, ta bera ta zu, feriyetako barraka batian aterako zaituztet. ¡A zer pillumeno paria!
- KAXILDA. Ori ere egingo zenduke zuk, baña ez dezu lortuko, zure egiñal guziagatik ere.
- URTZALE. (sabelari eutzi) ¡Ay... ay... ay!
- TXOMIN. ¿Zer dezu, gizona?
- URTZALE. ¡Ill bear det; abek oñaziak!
- KAXILDA. ¿Nun?
- URTZALE. Eztiak, urdalla ta biriketaraño guziyak erretzen dauzkat... Ay!

- TXOMIN. Ori utza dezu, gizona; laster joango zaizu.
- URTZALE. Ez, ez, ekarri zazute sendakiña edo apaiza; ill bear naizta.
- TXOMIN. (eltzen diyo Urtzaleri erori ez dediñ ta eramaten du aulkiyan exeritzera) Exeri zaitea onomen ta joango zaizu; ni ere orrela egoten naiz ernada mokoka azten zaidanean; zuri ere ernada arranoren bat eztieta sortu zaizu.
- KAXILDA. Edo ardokumia; zure galtzarbekua bezelakua.
- TXOMIN. Berritzu arranoa.
- KAXILDA. Banua, sendakiñari deitzera, naigaberik izan ez dezagun zorioneko korkoxakin (Kaxilda ateratzera dijoala, sartzan dira erdiko atetik Alkatea ta Bizargiña)

AMABIGARREN IRUDIA

Lenguak, Alkatea ta Bizargiña

- URTZALE. ¡Ai nere eztiak! ¡Ai!
- ALKATEA. ¿Zein da eztieta gaxo dagoana? (Urtzaleri) ¿Zu altzera?
- URTZALE. Bai jauna. ¡Ai nere urdalla!
- ALKATEA. ¿Zer? ¿Urdalletik ere sentitzen aldezu?
- URTZALE. Bai jauna. ¡Ai nere birikak!
- ALKATEA. ¿Biriketetik ere bai?
- URTZALE. Bai jauna; ill bear naiz.
- ALKATEA. (Bizargiñari) Tira, Sangrijuelas jauna; ikusi zazu onek zer gaitz daukan.
- BIZARGIÑA. (Urtzaleri) Atera zazu mingaña.
- URTZALE. ¿Zertarako?
- BIZARGIÑA. Atera zazu ta esango dizut.
- TXOMIN. Txorua; iruditzen zayo mingañian eztiak ikusteko ispillua daukala.
- BIZARGIÑA. (Urtzaleri mingaña ikusita) Ardomiña dauka; ardo txarrak eztiak erre dizka.
- TXOMIN. Ez nik emandakuak, beintzat.
- URTZALE. Zuk eman dirazunakin gaxotu naiz, ez det bezterik edanta.

- ALKATEA. Txomin, ¿zer zikulusaltza egiten dizkatzu arduari? ¿Zer botatzen diyozu?
- TXOMIN. Jauna, nik ezer ez, ur pixkat ezpada.
- ALKATEA. Ura botatzen diyozu beraz. ¿Zuriari ere bai?
- TXOMIN. (Buruari atzegiñaz) Neriari... ez ainbeste.
- ALKATEA. ¿Eta ala ere etzera aberaztu?
- KAXILDA. Berak asko bear du ta.
- ALKATEA. Ixo emakumiak. (Txomin) Arduari ura egiten diozulata, ¿Sangrijuelasi sendakintza pagatu nai ez diyozu?
- TXOMIN. Jauna, nik pagatu nai diyot sendatutakoan.
- BIZARGIÑA. ¿Zergatik ez dirazu sendatzen utzi?
- ALKATEA. Tira, aski degu; nik jakingo det kontu au erabagitzen (Bizargiñari) Tira, Sangrijuelas, ¿zer agintzen diyozu gaxuari?
- BIZARGIÑA. Tipul egoziyen ura artu dezala ta zendatuko da.
- ALKATEA. (Kaxildari) Tipulak egozi egitzatzu ta gaxoari ura ekarri egiozu.
- KAXILDA. Bai jauna, berealaxe.
(Joaten da Kaxilda ez kubiko atetik)

AMAIRUGARREN IRUDIA

Txomin, Urtzale, Alkatea, Bizargiña ta Ertzaya

- ERTZAYA. (atetik) Egun on daizuela, jaunak. ¿Alkatea emen aldago?
- ALKATEA. Emen nago, bai; aurrera etorri zaitia.
- ERTZAYA. (Alkateari antzezte ta eskutitz bat emanaz) Abek bidaldu dituzte bedorrentzat.
- ALKATEA. (Artzen dizka ta eskutitza irakurtzen du) Urdauriko alkate jauna: Gizon ikaragarri batzubek erbeztetik etorri zaizkigu ta ernai egon zindezke, abetakoren bat orreraño joan ez dagizun. Gizon aben egitekua, bonbekin kristau guziyak iltzekua da (beziari) ¿Aditzen aldezute?
- TXOMIN. Ni ez nau ilko; portestante egingo naizta.

- KAXILDA. Len ere naikua portestante zera.
- ALKATEA. ¡Ixo! (irakurtzen) Gizon gaizto oyetako baten antzeziya (erretratua) bidaltzen dizut, orreraño iritxia balitz ezagutu dezazun; korkox antzekua da baña korkoxaren ordez bonba bat darama; kontuz ibilli zaitia Urdauriko alkatea, anarkista data.
(Alkateak, aldizka, antzeziari ta Urtzaleri begiratuaz) ¿Zer da au?
(Urtzaleagatik) Antzeztikua ta berau bat dira (Urtzaleri) Zu zera, zu, anarkista. ¿Zer dezu bizkarreko ori? ¿Bonba?
- URTZALE. Ez jauna; zera... zera...
- ALKATEA. Aitzekiya asmatu eziñik zaude; eman idazu bonba edo txautuko zaitut; gizon iltzalle likitza (eldutzen diyo Urtzaleri besoetatik ta ertzayari esaten diyo: Aguazilla, kendu zakitza bonba.
(Aguazillak txamarrapetik eskua sartuta ateratzen diyo Urtzaleri gazta berri bat egin ditun alegiñakin zerbait banatu zayola ta lurrera botiaz diyo:) ¡Lertu zait!
(Ertzayak itz ayek esandakoan, Txomin mostradore atzean eskutatzen da; Alkatea Urtzaleri utzita erdiko ateraño igasi joaten da; Ertzaya maipera ta Bizargiña ezkerreko atera.
- URTZALE. (Gazta lurretik jazuaz) Jaunak etzaitetze bildurtu, gazta berriya da ta.
- ALKATEA. ¿Gazta? ¿Gaztakin iltzen aldituzu gizonak?
- TXOMIN. Bai; arratoyak bezela.
- ERTZAYA. Ill baño len amaiketakua egingo degu.
- URTZALE. Goziak nengoanta, artzai txabola batetik artu det.
- ALKATEA. Laga zazu bada geldi geldi mai gañean.
- TXOMIN. Bai; arratoyak bezela.
- ERTZAYA. Ill baño len amaiketakua egingo degu.
- URTZALE. Goziak nengoanta, artzai txabola batetik artu det.
- ALKATEA. Laga zazu bada geldi geldi mai gañean.
(Urtzalek lagatzen du gazta mai gañean)
- ALKATEA. Aguazilla usai egiozu, ia gazta dan edo ez.
- AGUAZILLA. Nik ez diyot usayari igartzen, jayotzezko usaigabekua naiz ta.
- ALKATEA. Txomin; zuk egiozu, bada.
- TXOMIN. ¡Bai zera! Lertu ta sudurra aidean eramango likit; obeko degu gure andriari deitu; iltzen badare ez da azkorik galduko.

ALKATEA. Deitu zayozu, bada.

TXOMIN. (deadarka) Kaxilda!

AMALAU GARREN IRUDIA

Lenguak eta Kaxilda

(Kaxilda sartzen da ezkuiko atetik korraren kayola ta tximuba dakazkiyala)

KAXILDA. ¿Zer da orrenbeste Kaxildarekin? (Txomini) ¿Zuri ere eztieta miña egin altzaizu?

ALKATEA. Emakumea zabitz azkar (arrituta) ¿Baña, zer trezna dakazkitzu? ¿Pamiliyakin al zatoz?

TXOMIN. (Kaxildari) Lagaitzatzu eskuetako oyek eta usai egiyozu mai gañeko orri, ia gazta dan edo ez.

KAXILDA. (Joanta gaztari usai egiñaz) Gazta da; ondo usai ederrekua alere.

ALKATEA. Beatza zartu zayozu ia barruan zerbait ote daukan.

KAXILDA. (gaztari beatza sartuta geri milixkatuaz) Idiazabalko gazta berriya da.

TXOMIN. (bere eskutalekutik irtenta) Ez da bonba. Tira, zertan zaudete bildurraz? ¡A zer soldaduak zuek gerra baterako!

(Alkatea, Ertzaya ta Bizargiña beren eskutalekuak laga iruditegiaren erdira etortzen dira)

ALKATEA. Izuba pasatzeko gazta jan zagun Txomin, atera iguzu pitxar bate ardo ta ezaiguzu zertarako dauzkatzun kayolako txori ori ta tximuba etxean gordeta. ¿Ume ordezkoak aldituzu?

TXOMIN. Esango diyot egiya. Nere andrea aiñ da berritzua...

KAXILDA. Bai ta zu ixilla, arranoka azten zeranian.

ALKATEA. Emakumeak ixillik. Esan zazu, Txomin, esan bear dezuna.

TXOMIN. Aiñ da berritzua, eze, galtzarbeko txoriya ere bere berriketak diralata irten zait.

KAXILDA. Arduagatik.

ALKATEA. Ixooo! Bestela multa botako dizut.

- TXOMIN. Ara nun etorri zaidan nere miñaren osakintza ijitandra baten bitartez.
- ALKATEA. ¿Zer bada? ¿Belarren batzuek agindu aldizkitzu?
- TXOMIN. Ezta belarriyak ere; kitorra erozteko agindu zidan, nere Kaxilda mututu dediñ ta andikan laster ijito giza bat etorri zat alimali abek zekazkidala. Urtzale bitarteko dala tratuba egin deguta onamen oraiñ zer gauz ederren jabe naizan.
- KAXILDA. Ederrak bozt beatzian; zu bezelakuak.
- URTZALE. Kayolakua, guztiz iztuna omenda.
- ALKATEA. Txomin, itzeragiyozu kotorrari.
- TXOMIN. (artzen du kayola ta mai gañean ipintzen du) Tira kotorratxo esan zerbait jaun aberi. (ez du ezer esaten)
- ALKATEA. Andria mututu bearrian kitorra mututu zaizu, Txomin.
- TXOMIN. Ez arranua; itzegin beariko du edo mokuan jota zaputza kenduko diyot. Kotor arranua ¿itzegingo alden edo ez? (kitorra ixillik dago)
- URTZALE. ¿Nola nai dezu itzegitia mokua lotuta daukala?
- TXOMIN. Egiya da izan ere. (kayolako atea erekita txoriyari mokua askatzen diyo esanaz) Orain, oraiñ egingo digu Prantziko presidentak egin zuan sermoya. Tira kotorratxo, azi zerbait ezaten. (Txoriyak, beliak oidun bezela, kua, kua! egiten du ta guziyak farrez asitzen dira ta alkatiak diyo:)
- ALKATEA. Txomin, zure kitorra belia da; ederra sartu dizu ijituak.
- TXOMIN. Ilko det, orrelakorik egin badit, tranposo arranua; amar duro bezterik ez dute baliyo.
- KAXILDA. Amar duro! Gizon etxe ondatzallea; zuk kendu bear dirazu osasun guziya.
- TXOMIN. ¿Zeñi aditzen zaizute txori kontuan?
- URTZALE. Neri.
- TXOMIN. Ikusi zazu ondo, kitorra edo belia dan.
- URTZALE. (txoriyari ezkuia luma gañetik pasatzen diyo ta esaten du: Txori au gañetik pintatua dago, ta azpiya kedarra baño beltzagua du; bele utz utza da.
- TXOMIN. ¡Deabruen adarrak! Ilko det ijito birauba.
- ALKATEA. Onena ikusi degu; orain ikusi zagun monaren dantza, naigabea pasatzeko.

- TXOMIN. (artzen du tximuba ta mai gañean ipintzen du esanaz) Tira makakiko dantzatu adi prantzian dantzatzen diran bezela.
- URTZALE. (tximubagatik) Onek ere muturra lotuta dauka.
- TXOMIN. (askatzen diyo ta esaten du:) ¿Nola ito ez alimali gaxua arnasarik artu ezinta? Tira makakito, dantzatu adi, pollit ori.
- (tximubak dantzan azi bearrean katuaren mayua egiten du. Miau! (esanaz) (Txomiñek jotzen du ukabillakin ta alimaliyak) Fuu! (egiten diyo) (Bezte guziak farrez azten zaizka ta diyo:)
- ALKATEA. Katua sartu dizute monatzat, Txomin.
- KAXILDA. Emendik aurrera, Txominarrano deitu bearrean, Txomin kaiku deituko dizute.
- TXOMIN. Zaude ixillik emakumea, beztela ilko zaitut; au ere neri gertatu bear zitzaidan, ez ditut amar duro alperrik eman.
- URTZALE. Andria pozez soratzen dago; oraingoan ez da sei illabetean ixilduko.

AMABOSGARREN IRUDIA

Lenguak, Mikeletia, Ijitua ta Ijitandra

(Ijitua ta Ijitandra sartzen dira Mikelete batek aurrean dakazkiyala)

- MIKELETIA. Alkate jauna: ona emen lapur bi nun dakazkiyotan.
- ALKATEA. ¿Lapurrak aldira? Zer ostu dute?
- MIKELETIA. Atezabal baserritik astua ostu dute, baserrikuak soroan lanean ari zirala, ta jabeak ezagu etzezan begi bat atera diyote alimali gaxuari.
- ALKATEA. (Ijituari) ¿Zer? ¿Begiyyetako operazyuak egiten ere ikasi dezute? Nik billatuko dizuet bezeri (parroki) ona opiziyua astu ez dezazuten; kartzelako euli guzieri begiyak atera arteraño etzaituztet andik aterako.
- IJITUA. Jauna, guk ez diyogu iñori astorik ostu; guria da.
- MIKELETIA. Zubena izan balitz etzan laga degunian Atezabalko ikullura joan dan bezela joango.
- IJITANDRA. Gozeak zegoanta lasto usaira joan da.
- TXOMIN. (Ijitandrari) ¿Ta zu zeren usaira etorri zera len onera, etorkizunaren igarlea ziñala esatea? (Ijituagatik) Bezte onekin panpantxo eginta

neri amar duro ziplatzeagatik? (Ijituari lepotik eltzen diyo) Itoko zaitut nere dirua atzera ematen ezpadirazu.

ALKATEA. Laga egiozu, Txomin, zuk ere erruak badituzu ta; gogoratu zaitte arduari egiten diyozun urakin ta Sangrijuelasi sendakintza pagatu izan nai ez diyozula; gañera, ez dagokizu zure ezkutik justiziya egiterik; zerbaitegatik nago ni emen.

BIZARGIÑA. Bai, alkate jauna; bedorrek justiziya egin beza, eman dezaidala sor dirana.

ALKATEA. (Bizargiñari) Zu ere ixillik zaude, erruak dituzuta. ¿Zertan eduki dezu Txomin gaxua orrenbezte denporan sufritzen, zendatu edo ill, zirt edo zart egin gabe? ¿Sendakintzan ez dakizulako edo zure irabaziya luzatzeagatik? Batera edo beztera dala errudun zera.

URTZALE. Ori da ondo itzegitea, ori.

ALKATEA. (Urtzaleri) Zu ere mutu bazeundeke, gazta ostu dezuta.

URTZALE. Baña nik ez det iñor engañatu; goziak nengoan ta ¿zer egingo nuan zegoan lekutik artu baño?

ALKATEA. Mendira joanta belarra jatea zendun. (Aguazillari Ijituagatik) Eraman itzatzu abek kontzejupeko ostatura eta ango euli guziyak itxutu edo begibakartu arteraño eduki itzatzu.

IJITANDRA. (belauniko) Barkatu bezaigu alkate jauna; ez degu geyago orrelakorik egingo ta.

IJITUA. (Urtzaleri) Anai; lagundu nazak kartzelatik libratzen.

URTZALE. ¿Ni zure anaya?

IJITUA. Bai, ni nak, Juan ire anaya, txikitan Juantxo deitzen zidatena ta Prantzi aldera juanta aspaldiyan nengoana; xiñisten ezpadek, ona emen (kentzen ditu Ijituak bizar ordezkua (postizua) ta peluka) ¿Ezagutzen al nak?

URTZALE. (arrituta) ¡Juantxo! Nere anaya aiz, bai, baña ¿nola ijitotu aiz?

IJITUA. Goziak ijitotu natxiok.

ALKATEA. (biyeri) Zuek goziak egindako umeak zerate, noski.

TXOMIN. ¡Ijito madarikatua! Bere ama ere engañatuko luke; dariyon itza ere bezterena dala esango nuke, birau arranuak.

URTZALE. (Ijituari) Ondo nengokan ire aberaztearen zai egon banintzok.

TXOMIN. Baita ni ere, oyen esanaz gañera andria mututuko zitzaidala siñixtuta; deabruak eramaten baditu ere ez da askorik galduko.

KAXILDA. Ondo egin zaizu, ondo; emendik aurrera ixildu gabe jardungo det nai detana esaten.

ALKATEA. Tira, orain guziyak ixildu zaitezte, justiziya egitera nua ta.

GUZIYAK. Bai, bai, justiziya nai degu.

ALKATEA. Sasi-alkate banaiz ere ez naiz sentzu-argiz motza; ez det beñere belarra asitzen ikusi baña, badakit sapua zer zulotan eskutatu diteken. Ez det justiziyako liburubetan ixturiatu baña goguan daukat aitonari ikasi niyon esakera gogoangarri bat.

GUZIYAK. Zer? Zer?

ALKATEA. Obe dala errukiya gogorkeriya baño.

GUZIYAK. Egiya, egiya.

ALKATEA. Eta... orrengatik etzaituztet gogorrean artu nai.

GUZIYAK. Ondo egiña, ondo egiña.

ALKATEA. Batez ere, neri kalterik egin ez dirazutelako.

GUZIYAK. Ezta egingo ere.

ALKATEA. Beraz, alkar barkatu zayezute, izan dituzuten ez baitak eta kito.

GUZIYAK. Bizibedi gure alkate ona.

TXOMIN. Nik ez baitak parkatzen ditut baña ez amar duruak.

ALKATEA. (Ijituari) ¿Zedorrekinaldauzkatzu Txomiñen amar duruak

IJITUA. Bai jauna.

ALKATEA. Ekazkidatzu, bada.

IJITUA. Arbitza. (ematen dizka)

ALKATEA. (Ertzayari) Berrogeitamar peseta abek erriko gaxuen artean banakatzeko dira, geyenak ardomiñakin daudeta.

TXOMIN. Len ere esan diyot ura bakarrik egiten diyotala.

ALKATEA. Berdin da; uraren diruak dira ta ura erriyarena da; zuria ez.

GUZIYAK. Erriyarena da, bai.

ALKATEA. Orain Urtzaleren gazta, guziyon artean jan dezagun, Txominek ardo puxka bat eman nai badigu.

ERTZAYA. Baña gazta ez da Urtzalerena, artzayena baizik.

- ALKATEA. Ori ez da erriyan gertatu dana ta ez daukat nik berakin zer ikusirik; gelditu dadilla Urtzaleren kontzientzirako.
- URTZALE. Bai jauna; laga nere kontzientzirako.
- ALKATEA. Gañera nere justiziyak, orrenbezte baliyo dula uzte det.
- GUZIYAK. Baita geyago ere; jan zagun, bada, jan dezagun! Bizibedi gure alkate ona.
- ALKATEA. Egon zaitezte nik zerbait esan artean. (jendeari)
- Jendiak egin arren irri eta farra
ez naiz mundu onetan alkate bakarra;
makiñat badago eme edo arra
nun daukan ez dakilla begiko makarra.
- TXOMIN. - Orain euskaldunari on dagokiona
da txaloz ondratzia gure Alkate ona.

AMAYA